



## 'SUA' HERRIRA ERE HELDU DA

Alurr dantza taldeak 'Sua' ikuskizuna eskainiko du Ibarako Belabieta kiroldegian, hilaren 30ean 6

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Ostirala  
2009-01-23

VILURTEA 1.610.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Janire eta Leire egunero joaten dira liburutegira; irudian, liburu bana irakurtzen. N. URBIZU

## URTEBETE IGAROTA «OSO POZIK» DAUDE ERABILPENAREKIN

**BIDEGOIAN** Liburutegia inauguratu zutela urtebete bete da eta bere arduradunak, Begoña Olamusuk, «balantze oso ona» egin du 7

## Olazabalek Gonzalez ordezkatu du Binakakoan

**ARESO** Abel Barriola izango du bikote pilotariak Olaizola eta Mendizabalen aurka, bihar 5



Peñagarikano, Eraso eta Iturzaeta. E. EZEIZA

## Kultur egoeraren azterketa sakona egingo du Erasok

**TOLOSA** 'Kultura gizartean' diagnostikoa aurkeztuko du Tolosa 2015 egitasmoaren baitan 3

## Julian Gaiarre kalea berritzeko, 756.000 euro

**IBARRA** «Oztopo arkitektonikoak kendu» nahi dituzte; beste hainbat proiektu ere landuko dituzte 6

**UNAI ZABALETA**  
KARRAPE IRRATIKO ESATARIA

«'Oh happy day' ongi pasatzeko lehiaketa bat da, ikuskizun bat»

**LEITZA** Epailak egingo ditu ETB-1eko saio berriak 4



Unai Zabaleta (eskuinean) 'Oh happy day' saioko lantaldearekin. HITZA

**Z Zurea da hitza**

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailez, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

**Autocad 2009 aurreratua**

Itsasmenetikoi Fraisorok Autocad 2009 aurreratua ikastaroa antolatu du. Otsailak 9tik otsailaren 19ra arte izango da. Ordutegia, 16:00etatik 20:00etara. Informazio gehiago telefono zenbaki honetan: 943 69 21 62.

**Amaia (Itsasmenetikoi Fraisoro).**

**Hobe da berandu inoiz baino**

Behin baino gehiagotan idatzituen pasa den urtean Alliri pasealekuko baldintzen inguruan. Kexa bat baino gehiago nuen baina besteak beste lurreko baldosen egotzez kezatu nintzen.

Gogoratzen ez denarentzat, baldosa hauek altxata zeuden eta erria egiten duen bakoitzean hanka bertan sartzea ia ezinezkoa da, gehienak altxata daudelako. Horretaz gain, umeen aulkiekin-eta ibiltzeko oso ezerosoa zen.

Bada, badirudi konpontzen hasi direla. Langile batzuk ikusi ditut bertan eta nonbait denak berdindu eta gaizki zeudenak kendu behar dituzte. Badago esaera bat dioena hobe dela berandu inoiz baino eta kasu honetan hori baieztatuko dut. Milesker, beraz, azkenean konpontzeagatik. Ikusiko dugu nola geratzen den.

**Mikel (Tolosa).**

**Bedaiokio Beñat Beloki txapeldun**

Joan den abenduaren 30ean Errendimenduko Txapelketa 2008-2009-ko eskuz banakako bigarren urteko alebinetan eskualdeko txapelduna izan genuen Beñat Beloki bedaiotarra.

Best partidu jokatu ondoren, azkenik segurarren kontrako partiduan aterata zen garaile zortzinako bi partidu irabazi ondoren (8-3; 8-3). Zorionak Beñat!

**Jon.**

**Zorionak Bide Ertzean!**

Zorionak Bide Ertzean! Leidorreko kontzertuan izan nintzen eta zoriontzekoa iruditzen zait. Soirretaz gain, umeen aulkiekin-eta ibiltzeko oso ezerosoa zen.

**Herritar bat**

**Danborradarena irtenbide ona**

Azkenen Inauterietako gaueko danborrada arratsaldera pasatu dugu. Ni ez nengoen oso ziur baina uste dut hoberena hauxe izango dela. Azken urteetan galduta zegoen erabat. Ia inor ez zuen ikusten eta saikera bat baino gehiago egin da hobetzeko.

Hala ere inoiz ez da ezer lortu eta ea aurtengo honekin hobetze deun. Ikusiko da!

**Tolosa bat**

**B Blogteka****Hizkuntza indartzeko web interesgarriak**

Euskara frexkatzeko edozeinek erabil ditzaken web-ak dira. Entrenigarria da: txistek, bideoak, irriti saioak...

1. Seme-alabei ikasketetan lagundu nahian euren euskara egokitu nahi duten gurasoak gaitzeko langaiak: Gurasoak lagunduz

<http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/language/eu/user/anon/page/ikasmaterialadetalde?gid=149296>

2. Euren hizkuntza gaitasuna hobetze aldera erabilera arduratuta dauden interesatuekin erabiltzeko langaiak.

<http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/language/eu/user/anon/page/ikasmaterialadetalde?gid=149295>

**Hirukide ikastetxea**

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/hirukide>

**Hodei Truk Samaniego abesbatza saritua**

Pasa den 2008 urteko abenduaren 27an 62. Gabon Abesti Sariketa Probintziala ospatu zuten Errenterian.

Bertan Hodei Truk Samaniego

**Inauterietan nola izango da ibilbidea?**

Galdera bat daukat. Karrozetan eta konpartsetan izena emateko epea ireki dutela irakurri dut. Eta nondik joango dira karrozak aurreratu?

go abesbatzak parte hartu zuen eta bere emanaldiarekin brontzeko saria lortu zuen.

Zorionak!!

**Samaniego ikastetxea**

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/samaniego>

**Piztu itxaropena! Baietz ikastolan 1.000 kilo lortu!**

Aurten ere martxan da sahararrei laguntzeko janari bilketa. Gure eskualdean Tolosaldea Sahararekin elkarre arduratzen da janari bilketa honetaz *Piztu itxaropena* leloarekin. Gainera, aurtengoan, iaz bezala, badute eronka bat, 10.000 kilo gainditzea, hain zuzen.

Laskorain Ikastolan ere helburu bat jarri dugu, iaz bezalaxe 1.000 kilo lortzea. Beraz, Ikastolako edozein idazkaritzetara ekar dezakezue azukrea, arroza, pasta, atuna eta sardinak oliotan, lekaleak edo konpresak (hau da eskatzen dutena).

Bestalde, gogoratu Merkatu Txikian lortutako diruaren erdia Saharar herrira bideratuko dela.

Piztu itxaropena!

**Laskorain ikastola**

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/ikastola>

ten? Badakit bilerak egiten egon direla baina ez dakit zertan geratu diren.

Nahiko zaila ikusten dut, ez? San Frantzisko guztia behintzat a tope dago...

**Josu.**

**K Kirol jarduera****Bihar, larunbata****Futbola**

■ Berazubi futbol zelaian, 16:30ean Gazteen Nazional Mailan: Tolosa CF-Cultural Durango.

■ Usabalgo futbol zelaian, 09:00etatik aurrera, infantilen Ohorezko Mailan: Tolosa CF-Kostkas

■ Usabalgo futbol zelaian, 10:30ean, kadeteen 12:00etan, Lehen Mailan: Tolosa CF-Hondarribia.

■ Usabalgo futbol zelaian, 12:00etan, emakumezkoen kadeteen F-8: Tolosa CF-Ordizia.

■ Usabalgo futbol zelaian, 15:30ean, lurraldekoen Lehen Mailan, Tolosa CF-Mutriku.

■ Usabalgo futbol zelaian, 17:30ean, jubenilen Ohorezko Mailan: Tolosa CF-Alleru.

**Saskibaloia**

■ Usabalgo goiko kantuan, 10:30etik aurrera, infantilak: nekak, TAKE A. Langaitz; mutiletan bi norgehiagoka: TAKE A-Oiartzuri; eta TAKE C-Antigua Luberri.

■ Usabalgo beheko kantuan, 16:00etatik aurrera, jubenilen mailako neurketan aurrez aurre TAKE-Hernani.

**Etzi, igandea****Eskubaloia**

■ Usabalgo goiko kantuan, 12:00etan, Senior Mailan, Tolosa-Groseto.

**Futbola**

■ Usabalgo futbol zelaian, 11:00etatik aurrera, jubenilen Lehen Mailan, Amaroze-Segura.

**Urtarrilak 26, astelehena****Pilota**

■ Beotibar pilotalekuan 6:30ean Esku pilota partidak. Profesionaletan: Binakako txapelketa: Olaizola I-Patxi Ruiz Xala-Laskurainen aurka.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldekohitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldekohitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

**902 402 900**  
zerbitzu iraunkorra



**BULEGOAK:** Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala Tolosa (Bellatokia)

# Tolosako egungo kultur egoera sakonki aztertuko du Xanti Erasok

**Gizartea** » Tolosa 2015 egitasmoaren baitan, 'Kultura gizartean' izenburupean diagnostikoa burutuko du tolosarrak.

## ESTI EZEIZA

Tolosa 2015 egitasmoaren baitan, izen bereko sailak eta Kultur sailak bat egin dute ekimen berri bat martxan jartzeko asmoz. Hala, *Tolosa. Kultura Gizartean* izenburupean, hiriko egungo kultur egoera aztertzea du xede, baina bere osotasunean hartuta.

Atzo aurkeztu zuten egitasmoa Udaletxeko Batzar Aretoan. Bertan izan ziren, Tolosa 2015 saileko zinegotzi den Iurre Peñagarikano, Kulturako Andoni Iturzaeta eta azterketaren egikaritzaz arduratuko den Xanti Erasok. Duela bost hilabete hasi zen proiektu honekin, eta urrirako diagnostikoa osatuta izatea espero du. Ateratako ondorioak Udalarari helaraziko dizkie eta honek erabakiko du aurrera begira zein bide jarraitu.

Udal ordezkarien hitzetan, «kultura zentzu zabalenean eta sakonenean» aztertu nahi dute proiektu honetan. Halaber, eki-



Atzoko aurkezpenean, ezker-eskuin: Iurre Peñagarikano, Xanti Erasok eta Andoni Iturzaeta. E. EZEIZA

men interesgarri eta beharrezkotzat jotzen dute, gainera, etorkizun laburrean, emaitzak emango dituen.

## Diagnostikoaren ildoak

Azterketaren lehen fasea amaitzeko ardu da Xanti Erasok. Duela bost hilabete ekin zion lanari, eta orain

arte, elkarrizketa pribatuak egiten aritu da. Hau da, herritar ezberdinekin jarri da harremanetan, eta inkestak bidez hauen iritzia jasotu du. Hemendik gutxira berri, bigarren fasearekin hasiko da. Hemen, berriro elkarrizketak burutuko ditu, baina kasu honetan, publikoki. Izan ere, grabatuak izango dira

eta sarean edo komunikabideetan zabaldu ahal izango ditu. Arlo eta inguru ezberdinetako tolosarrei egingo dizkie galderak. Azterketaren egilearen hitzetan, «prozesu irekia da, eta nire nahia da ahalik eta jende gehienarekin hitz egitea». Honenbestez, parte hartu nahi duten herritarrek Erasorekin

zuzenean edo Udaleko bi sail hauekin harremanetan jarrita egin ahal izango dute ekarpena.

Lehendabiziko pauso hauek eman ostean, kanpoko begiradaren bila joango da. «Tolosar batek hitz egiten duenean bere inguruko gauzetaz, nahigabe bada ere, modu subjektiboan egiten du, horregatik, beharrezkoa da, inguru honetatik at daudenen iritzia», azaltzen du Erasok. Lan hau egiteko Bilboko gizarte zerbitzuetako enpresa batetara jo dute, eta hauek, distantziatik egingo dute azterketa propio bat.

Azkenik, Udaleko sail ezberdinetako langile eta ordezkariekin jarriko da harremanetan, beraien ekarpenak egin ditzaten, eta baita, ateratako ondorioak eztabaidatzeko.

## Diagnostikoaren helburuak

Iraganari, orainari eta etorkizunari begira jarriko da Xanti Erasok proiektu honetan. Hala, egungo adierazgarri soziokulturaletan zentratuko da, Tolosako gizartearen oinarriak zeintzuk diren jakiteko.

Xanti Erasoren ustetan, besteak beste, ondorengo baldintzak hartu behar dira kontuan, kulturaren garapen honetan: alde batetik, elkarbizitzan, kultur aniztasuna, erlijio-soa, generokoa... kontuan hartzea. Baita, Tolosak duela urte batzuk arte zuen zentraltasun hori berreskuratzea ere edota kudeaketa sistema berriak aurkitzea.

# Sahararen aldeko janari bilketa aurrera doa



Kultur Etxeko horman ikus daiteke dagoeneko zenbat kilo bildu dituzten. E. E.

**Gizartea** » Egitasmoarekin lotuta, bihar goizean haima bat jarriko dute Triangulo plazan; tea eta kus-kusa banatuko dute.

## ERREDAKZIOA

Urtero bezala, martxan da Sahararen aldeko Euskal Karabana, *Piztu Itxaropena* lelopean. Eskualdean, Tolosaldea Sahararekin Sahara bizi! elkarteak ari da aurrera eramanez janari bilketa. Arroza, lekaleak, pasta, hegala oliotan, sardinak oliotan, azukrea eta konpresak dira aurtur utzi beharrekoak, eta

eskualdeko udaletxe eta supermerkatu (Consumer, Eroski eta BM) gehienetan jarri dute horretarako aukera. Aipatzekoa da EKO janaridendak 300 kilo emango dituela, bilketarekin laguntzeko. Duela gutxi hasi badira ere, dagoeneko 2.000 kilo produktu lortu dituzte. Hala ere, asmoa da 10.000ra iristea.

Egitasmoarekin lotuta, bihar 11:00etatik 14:30era haima bat jarriko dute Triangulo plazan. Hala, bertaritzen direnek tea eta kus-kusa dastatzeko aukera izango dute dohainik. Sahararen aldeko elkarteak eskerrak eman nahi dizkie ekimenarekin bat egin dutenei.

jakin.  
eta egin  
saber  
hacer

## ONGIZATEA BIENESTAR

**Nazioarte mailako adituak. Ehunka lan bilera mundu osoan. 30 herrialdeetako esperientziak. 3.000 baino pertsona gehiago.**

**Lan gogorra egin dugu Euskadik ongizate handiagoa izan dezan.**

**Euskadiren etorkizuna aurkezten dizugu:**  
**THINK GAUR EUSKADI 2020 HAUSMARKETAREN EMAITZAK.**  
**IGANDEA, URTARRILAREN 25A.**  
**11:30EAN, EUSKALDUNA JAUREGIKO AUDITORIUMA, BILBAO.**

www.thinkgaureuskadi2020.com

## Kolore, kolore



### » Herrira begira

**Asier Arzallus**  
Saskibaloijokalaria

**2**009 urte berri hontan idazten doten aurreneko artikulue da hau. Azken aldin eguberririk hasteren du etxera joateko, taentatezako maleta itten zaude berriz bueltatzeko.

Eguberritako geldialdin ondoren asko kostatzen da berriz bizi normalea pasatzea. Aste bat eukitzen du etxera joateko, taentatezako maleta itten zaude berriz bueltatzeko.

Udako oporren ondoren ezta hoi pasatzen, beti hasteko irrikitan eoten da bat. Denboraldi berrie, batzutan hiri berrie, ta gauz berri asko aurkitzen die ta beraz ezta asko kostatzen opor eunek utzi ta entrenamentutan hastea.

Kontu hontaz nere laun miñe den Aimar Sagastibeltzakin hitzein nun oain dela enu batzuk.

Berak bigarren urtea do etxetik kanpo ta berdiñe pentsatzen zula esaten zin. Nik uste Leitzek zerba-

tte berezie dola, hoi izanen da akaso...

Kirol kontutan sartuz, esan beharra dauket momentu garrantzitsu baten gaudela. Azken partidue irabazi ondoren egora berezi baten gaudela. Asteburu hontako partidue irabazten badu aurrea pauso haundi bat emanen du, ta denboraldi bukaerako play off-ak jokatzeko borrokan sartu gatzetke. Beño bestalde partidue galdu ezkeo jeitsiera postuta gehiegi hurbilduko ga. Beraz kontuz ibili beharko ga ta daukeun guzie eman irabazi ta lasaiego gelditzeko. Hemen ikusten da beste eun baten kontatzen nizuena, Liga oso berdindue dau ta gora-behera asko daude.

Urtero bezela Leitzeko ihotek aiatu die. Lanbetetik astartera Leitzeko kalek kolore ta parrandaz jantziko die. Aipagarrie iruitzen zait 3.000 biztanleko herri bat izateko, igande eguerdin itten den karoza desfile ikusgarrie. Aste, eun, ta ordu askoko lana dau guzti horren atzen, ta eskertzekoa da herriko kuadrillek pasatzen duen deno guzie dena prestatzen ondoren holako ikuskizune eskeintzeko. Ondorengo bazkari ta juerga earki irabazie daukezu! jeje.

Bueno ba besteik gabe ihote onak pasa ditzazuela ta ea mozo-oro original ta polittekat ateatzen zaizkizuen aurtengoan. Ongi pasa!

## Laburrak

### Dantza-Sokaren entseguak ostiralero, Edurkan

**ANOETA** • Heldu den otsailaren 14ko Dantza-Sokarako entseguak egingo dituzte ostiralero 18:30ean Edurkan. Parte hartzeko zerrendak jarrita daude Itzuli tabernan, otsailaren 6ra arte.

### Bengoetxea eta Lopezen argazkiak ikusgai

**AMASA** • Egoitz Bengoetxeak eta Gorka Lopezek Alpeetan ateratako argazkien erakusketa dago ikusgai Kultur Etxean, Alpeetako argieklin jolastuz izenburupean.

### Arkaitz Olanok Jaitsiera Kanporaketa jokatu du

**LEITZA** • Nafarroako 2. Mailako Aizkolari Txapelketako Jaitsiera Kanporaketa ilbeltzaren 31n, larunbatean, jokatu da Iturenen 13:00etan. Beste hiru aizkolariarekin batera, Arkaitz Olanok leitzarra egongo da bertan. Jaitsiera Kanporaketa honetan lehen postuetan gelditzen diren bi aizkolariak maila mantenduko dute eta azken biak 3. mailara jaitsiko dira. Aizkolariak egin beharreko lanari dagokionez, lau partaideek bi kanaerdiko eta 60 ontzako enbor bat moztu beharko dituzte.

## Elkarrizketa

**UNAI ZABALETA** » 'Oh Happy Day' saioko epailea



A. IMAZ

## «'Oh Happy Day' ongi pasatzeko lehiaketa bat da»

**Leitza** » Karrape Irratiko esataria, musikari profesionala eta orain telebistaren mundua barrutik ezagutzeko aukera edukiko du Unai Zabaletak larunbatetan ETB-1en.

ASIER IMAZ

ETB-1en reality berri bat estreinatuko dute bihar 22:00etan. Euskal Herriko zortzi abesbatzek astero abesti bana kantatu eta dantzatuko dute lehiaketa. Epaila lanetan Karrape Irratiko esataria, Unai Zabaleta (Leitza, 1974), egongo da.

**'Oh Happy Day' euskal reality berri honen epaimahaian Unai Zabaleta leitzarra egongo omen da.** Kasting bat egiteko deitu zidaten, baina ez zen epaimahaikide bezala aritzeko. Poliki-poliki aurrera joan nintzen; gauza batzuk egin nituen eta gero aukera hau izandu nuen: *Oh Happy Day* saioko hasi behar zuela eta epaimahaikide. Beti ibili naiz musika munduan, irratiesatari eta bat eta bestean. Aukera hori izandu nuen eta hortxe izandu naiz epaimahaikide, bai.

**Telebistan lehenago zerbait egin al zara?**

Orain dela urte batzuk Gasteizko suak aurkeztu nituen Estitxu Fernandezekin. Hor ere kasting baterako aukera izandu nuen, nik ateratu nuen eta Gasteizko suak aurkeztu nituen. Bestela irratian ibili naiz gehien bat.

**Zuretzat, pertsonalki, zer da aukera berri hau?**

Erronka bat. Dudarik gabe. Gero epaimahaikide izateak badauka bere ardura, gauzak diren bezala, alegia, denon gustua egitea oso zaila da; gauza guztietan, arlo guztie-

tan. Epaimahaikide batek..., bada kigu atzetik zer izan dezakeen horrek. Baina erronka berri bat bezala hartzen dut, beste mundu bat barrendik ezagutzeko aukera ere bai, kasu honetan telebista, eta gustura. Beti irratian aritu naiz, Gasteizko oso puntuala izandu zen telebistan, orain gutxienez barrenetik tripak ikusten ari naiz eta parte naiz; gustura.

**Epaimahaikide bezala zein izango da zure lana?**

Euskal Herriko 8 talde izanen dira programan parte hartuko dutenak eta nere lana epaitzea izanen da. Taldeak ez dira ohiko koruak, alegia, koruak dira baina ez dute beraien errepertorioa kantatuko; abesti modernoak, beraientzat berriak direnak, ingelesez, euskaraz, erderaz, ABBAren *Mamma Mia!*, Madonnaen abestiak, Ken Zappirenak, Akelarrenak... kantatuko dituzte baina denak koreografiarekin. Oholtza gaineko itsura, koreografiarekin nola dabilzan eta horrelako gauzetaz arduratuko naiz ni. Nahiz eta gero musikari ere errepertorioa dioten noski, epaimahaikide guztiek bezala.

**Irratian nola aurkeztuko zenuke 'Oh Happy Day'?**

*Oh Happy Day* ongi pasatzeko lehiaketa bat da; programa bat, show bat. Ongi pasatzeko aukera emanen duena, bixia izanen dena eta Euskal Herriko abesbatzek erakutsiko dute gai direla ohiko errepertoriotik atera eta gauza asko egiteko. Horrek ilusioa ere sortzen dit neri; askotan abesbatzak ikustera joaten ez da animatzen jendea, hemen erakutsiko dute abesbatzak gauza asko egin ditzakeela eta beraien mugetatik atera daitezkeela. Hori nabarmen erakutsiko dute. Gero nabarmen

geratuko den beste gauza bat neskin presentzia izanen da, gehien goa izanen dira. Hala ere mutilak badaude, oso kasu bereziak ere bai eta gutxi izan arren hor segitzen dute. Hori bultzatzeko aukera bat ere izan liteke. Azkenik, gaztetxo eta helduen nahasketa ikaragarria dago eta hori oso aberatsa da.

**'Oh Happy Day' reality bezala ere aurkeztu dute. Morboa eta antzekoek bere lekua izango al dute?**

Lehiaketa bat den heinean, kanporaketak, nominazioak, pikeak, morboa... egonen dira, baina beti ere giro natural eta sano batean. Nik esan izandu diet; gozatzeko, ongi pasatzera joateko eta modu hortan guk ere seguraski gozatu egingen dugula. Gero morbo aldeetik, askok esan ditek, nor izanen da epaimahaian Euskal Herriko Risto? Ez dago horrelakorik, bakoitzak berea esanen du eta kitto; errespetua ez dugu galduko inoiz, epaia konstruktiboak izan ditezela saiaturko gara, ikasteko ere baliobaitzake horrek.

**Leitza ez da herri handia eta horrelako gauza bat...**

Aurreneko programa inauterietan botako dute, beraz gehienak kanpoan egonen gara. Batzuk jadanik badakite eta aste honetan komunikabideetan ere aterata da nere izena: besterik gabe, lagunek pixkat zirikatu naute baina besterik gabe. Ni gustura nago, oso gustura. Gauza berria da eta gustura egin dot. Gero badakizu, telebistak azkenean audientziak jokatzen du. Ia zer gertatzen den, ia programak funtzionatzen duen, gustatzen den eta jarraitzen duen. Beraz, hemendik eskatuko diet herritarrei eta inguruko ikerlariei eta inguruko ikerlariei egon daitezela telebistaren aurrean, ETB-1en 22:00etatik aurrera.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



# Mikel Olazabalek Gonzalez ordezkatu du bihar Binakakoan

**Areso** » Abel Barriola izango du bikote pilotariak Olaizola eta Mendizabalen aurka; Azkainekoak kolpea du belaunean.

IMANOL MAGRO (BERRIA)

Mikel Olazabalek Sebastian Gonzalez ordezkatu du biharko Binakako Txapelketako partidari, Iscarren (Espainia), Abel Barriolaren alboan. Azkainekoak kolpea hartu zuen belaunean, eta handituta du. Belauburuko bursitisa du, eta ikusteko dago zenbat partida ez dituen jokatu. Haisera batean, bakarra beharko luke, baina enpresakoak zuhurrak dira, eta ez dute eperik eman. Oraingo, antibiotikoak eta hanturaren aurkako botikak eman dizkiote.

Txapelketan kide baten lesioarengatik sartu behar izatea ez da gozoa inorentzat, baina Olazabalek ez du ezkututzen ilusioa egin ziola enpresaren deiak. «Barriolarekin txapeldunen aurka jokatzeara aukera bikaina da, eta noski egiten didala ilusioa. Gero ere, iaz, Eugi eta Capellanen atzetik sartu nintzen txapelketan, eta aurrean ni aukeratu naute aurrean. Halere ez dut neure burua enpresako bosgarren aurrelari izateko hartzen, asko gaude hor. Hori bai, dezente argiago ikusten du goiko laurak urrun daudela».

## Iazko esperientzia

Iaz, Eugi Irujo ordezkatu zuen lehenbizi, eta, gero, Aresokoak Eugi. Lau partida jokatu, eta galdu zituen Lasarekin, eta hamabi tanto egin zituzten gehienez partida batean. Iazkoaren eskarmentuak etzi lagunduko diola uste du aurrelari gazteak. «Urduritasuna beti hor dago; kostako zait lasai irteera».

## «Kostako zait lasai irteera, baina iazkoarekin alderatuta, orain hobeto dakit zer den txapelketa»

MIKEL OLAZABAL  
Aspeko pilotaria

baina iazkoarekin alderatuta, hobeto jakingo dut zer helduko den. Hobeto prestatuta nago». Plaza-irizurik ez du izango, behintzat. Jendearen aurrera beldurrik gabe aterako da iazko txapeldunen kontrara.

Kidearen kezarik ez du, Olazabalen iritziz Barriola baita atzelari-rik omena. Lagun onak dira, eta biekin batera egiten dute lan fisikoa maiz, Iosu Irigoienekin aginduetara. Atzo ere, Barriolak enpresak baino lehen esan zion ziur aski berak ordezkatu beharko zuela Gonzalez. Atzo ez zuten hitz egin berriz, bai-



Lau t'erdikoan ere aritu zen pasa den urrian Olazabal, Bengoetxearen aurka Beotibar pilotalekuan. A. IMAZ

na gaur batera entrenatuko direnez izango dute partidari buruz luze mintzatzeko aukera. Barriolaren bertuteak zenbatzean zere-ndak ez du bukaerarik. «Abelek denak egiten gaitu hobea. Kantxa asko estaltzen du, kendu egiten du, bazter guztietara iristen da, aurrelariak bien artera botatzen duenean ere berak eskatzen du... Eta erasoan aukera duenean indartsu josten dio».

Olazabalek badaki kostako zaila Gonzalez ordezkatzeara, baina azken urtean izan duen hobekuntzak konfiantza ematen dio. «Jaz baino hobeto prestatuta nago. Kolpe pixka bat ere irabazi dut, baina horrek ez du esan nahi irten eta ondo jokatu dudunik. Txapelketako pilotak, gainera, indartsuak dira, eta oraindik arazoak ditut behar bezala mugitzeko».

## Olaizolaren aurkako bigarren partida Olazabalentzat

Txapelketaren aurretik hainbat partida nagusi egoki jokatu zituen Olazabalek, eta zabaldu zen txapelketan sarrezakeela Aspek. Aresokoak, ordea, ez zien kasu egin zurrumurruari, eta umil azaldu du ez zuela dudarik izan. «Goiko laurak hor dauden artean zail izango dut jokatzeara, eta nik garbi nuen ez nuela jokatu. Haien eta nire artean alde handia dago, kolpean batez ere, eta txapelketako pilotekin alde hori asko nabaritzen da. Hori bai, Bigarren Mailakoan sartu ez nindutenean, pentsatu nuen Lehen Mailako aurreneko ordezkoren artean nengola».

Txapeldunen aurka jokatzeko ere berezi bihurtzen du partida Olazabalentzat. Behin jokatu du Aimar Olaizolaren aurka, eta 22-5 galdu zuen, iazko txapelketan. «Kolorerik gabeko partida izan zen» dio, hala ere ez baitira erraz ahazten. Errebantxa gogo berezirik ez du, ez baitu gehiago motibatu beharrik.

«Errebantxa? Oso zaila da hori, bi pilotariak ere ondo baitaude. Mendizabal sasoi bikainean dago, eta denok dakigu zenbat jokatzeko duen Olaizola II.ak. Atzean abantaila dudala uste dut, eta hori baliatzen saiatuko naiz nire jokoarekin egiteko». Gogotsu mintzo da, eta iaz baino lasai-ago.

## Laburrak

### Manet eta Seiren, gaur gauean Bonberenean

**TOLOSA** • Musikak tartea izango du beste behin ere Bonberenean. Gaur, Manet eta Seiren musika taldeen kontzertua izango da, 22:30ean hasita. Biharkoan, berriz, Captain Nemo eta Coll Circus musika taldeak igoko dira Bonberene-ko oholtzara.

### Gaur, Tolosa CFren urteko batzarra, Kultur Etxean

**TOLOSA** • Tolosa CFren urteko batzarrera deitu dute gaurkorako. Hitzordua Kultur Etxean izango da 19:30ean (20:00etan bigarren deialdia). Bertan jorratuko dituzten gaiak hauek dira: urteko aurrekontua, Berazubiko igerilekuaren balorazio ekonomikoa eta biderragarritasuna eta lehendakari hautaketa.

### Karroza eta konpartsen izen-ematea, zabalik

**TOLOSA** • Hilabete eskas geratzen da 2009ko Inauterietarako. Herriko koadrilak hasi dira dagoeneko euren mozorroko prestatzen. Bada, karroza eta konpartsetan atera behar dutenek eman dezakete izena Kultur Etxen 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

### Asteburuan, bi film izango dira ikusgai Leidor aretoan

**TOLOSA** • *Un gran día para ellas* filma emango dute bihar, Leidor aretoan 19:30ean; 22:30ean, berriz, *Gomorra* filma izango da ikusgai. Film hau bera etzi 22:00etan eta astelehenean emango dute, 20:30ean.




DBH amaitsu ondoren	Batxilergoa (kasi) ondoren	Goi-Mailako Zikloen ondoren
<b>Heziketa Zikloak Erdi-Maila</b> 2 urte • Mekanizazio • Makineria eta linea errobotizatu instalazio eta mantentze elektronekariak	<b>Heziketa Zikloak Goi-Maila</b> 2 urte • Proiektu mekanikoen garapena • Mekanizazio biotekno-produktibo • Industri ekipoen mantentzeak	<b>IMH Ingeniaritza Eskola</b> 3 urte + arazo tekniko • 3 urteko lan esperientzia • Basi eta lan bantakako metodologi • Baxeneko ereduaren erabilpena • Bereziki ibarriaren inbentario dagoen titulu europar ofiziala
<b>BERRIA:</b> ( ) IKAI eta LAN 1. urteko ikasketak ematen		
<b>TITULUA: Ingeniaritza</b>		
<b>INGENIARITZAKO Ate irekiak:</b> Urtarrilak 24, larunbata – goizeko 11:00etan		
		
IMH - Azule azoka, 1 - 20870 Elgoibar - Tfona. 943 74 41 32 - imh@imh.es - www.imh.es		

# Julian Gaiarre kalea berritzeko 756.000 euro bideratuko dituzte

**Ibarra** » Iñaki Ugarteburu kirol zuzendariak Belabieta bisitatu zuen atzo; bertan ere berrikuntzak egin nahi ditu Udalak.

## ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalbatzak aho batez onartu zuen pasa den asteartean Julian Gaiarre kalea eta bere inguruaren berritze integrala egitea.

Obra honen diseinua A4 Estudio izeneko arkitektura taldeak egin du eta 756.000 euroko aurrekontua eta 9 hilabeteko exekuzio epea du. Era berean, 28 pertsonari emango die lan gutxi gorabehera.

Obra hauen helburu nagusia da toki horretako oztopo arkitektonikoak kentzea, baina badira beste lan batzuk ere: argiteria eta sanea-

mendua berritzea, bidea asfaltatzea, antzinako garbitegia egokitzea eta hiri tresneria jartzea.

Proiektu honen finantzaketa Espainiar Gobernuoko Toki Inbertsiorako Estatu Fondotik dator, udalek *Zapatero plana* gisa ezagutzen dutena.

Fondo berezi hau egungo ekonomia krisia gainditzen laguntzeko pentsatu dute eta udal bakoitzari biztanleko 178 euro ematen dizkio hobekuntza obrak egiteko; Ibarrari 756.271 euro dagozkio.

Proiektua Ibarrako EAJ, EA eta PSE alderdietako botoekin onartu zen, EB alderdiko ordezkaria ez baitzen bertan. Gobernu osatzen duten lau taldeen iritiz, «ezohiko finantzaketa honek ahalbidetuko du Ibarrako gunerik baztertuenetako bat berritzea, irisgarritasun arazoak konponduz eta hirigune



Julian Gaiarre kalea egokituko dute, izan ere ingurua nahiko maldatsua da eta berrikuntzak behar ditu. R. CALVO



atsegin bat sortuz, eta horrek, auzotarren bizi kalitatea hobetuko du».

## Belabieta kiroldegia

Era berean, atzo Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol zuzendaria, Iñaki

Ugarteburu, izan zen Ibarran Belabieta kiroldegia ikusteko.

Udal Gobernuoko kideekin batera joan zen Ugarteburu Belabieta- ra eta bertan instalazioak erakutsi zizkieten kiroldegiak behar dituen berrikuntzak zeintzuk diren ikusi

eta datozen hilabeteetan hauen azterketa egiten hasteko.

Bisita eta gero Udal Gobernuoko kideak eta Kirol zuzendaria bilduta egon ziren eta datozen egunetan iragarriko dute zein akordioetara iritsi diren.

## Laburrak

### Pirritx, Porrotx eta Marimotots 18:00etan

**IBARRA** » Bartolaren Batzordeak argitu duenez, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Piratak* emanaldia, gaur 18:00etan hasiko da Ibarrako Belabieta kiroldegian. Izan ere, kaleetan jarritako iragarpen kartele-tan emanaldia 18:00etan hasiko dela jartzen du, baina sarrerek, berri- ruz, 17:30ean izango dela diote. Bartolaren Batzordeko kideek, hortaz, akats hau konpondu nahi dute iragarpen honekin eta sortu daitezkeen eragozpenak ekidin. Hori- rik horrela, emanaldia 18:00etan hasiko da.

### ONA txartela eskuratzeko aukera otsailetik aurrera

**IBARRA** » Osakidetzako Osasun Txartel Elektronikoa berria, ONA, otsailetik aurrera eskuratu ahal izango da Ibarrako KZgunean. Sar- bide segurua izateko asmoz iden- tifikagarri pertsonala, bakarra eta besterenezina bateratzen ditu txartelak. ONA 16 urtetik gorako edonork eskatu dezake baldin eta lehenago Osasun Txartel Indibidua- la (OTI) badauka. Doakoa da eta oso erraz egiten da; NANA eta OTIa aurkeztu behar dira bakarrik. Ibarrako KZgunean (Ibai-Gain, 6 Behea) egin daiteke otsaileko as- teazken eta ostiraleetan 9:00eta- tik 13:00etara eta marxoan egun berdinetan egin ahal izango da baina 16:00etatik 20:00etara.

# Herrian hilaren 30ean eskainiko du Alurr dantza taldeak 'Sua' ikuskizun berria

**Ibarra** » Sarrerak salgai daude jada Ibarrako zein Tolosako hainbat lekutan; 8 euro balio du sarrerak.

## ERREDAKZIOA

Azaroan, Tolosako Leidor antzo- kian, eskaini zuen Alurr Dantza Taldeak bere ikuskizun berriaren, *Sua*ren, lehen emanaldia. Orain, «aldaketa txiki batzuk» egin eta gero, Ibarran ere izango da ikuski- zunarekin gozatzeko aukera.

Emanaldia Uzturpe Ikastolak urtero egiten duen Kultur Astea- ren barruan eskainiko dute eta da- torren ostiralean, hilak 30, izango da 22:00etan Belabieta kirolde- gian. Sarrerak salgai daude jada Uzturpe Ikastolan bertan, herriko Karlatz eta Zubiaurre tabernetan eta Tolosako Denak, Orbela eta Raku tabernetan ere. 8 euro balio dute eta 16 urtetik beherakoek 4 euroren oraindu beharko dituzte.

## Lapurdi, 1609

*Sua* Eneko Haritza Kultur Taldea egiten ari den izen bereko film- an oinarritzen da eta 1609. urtean La- purdiin gertatutakoa islatzen da. Gogoratu behar da, era beran, fil- meko lantaldea *Eneko Haritza* film laburraren bera dela; Tolosaldeko



Tolosako Leidorren eskainitako *Sua*ren emanaldiaren irudia. ALURR DANTZA TALDEA

eta Algortako gazte talde bat. *Sua* filman dantza taldeko eta Ibarrako jende askok hartu du parte eta be- raz, Alurri emanaldian oinarritu- tako ikuskizuna osatzea otu zi- tzaion. Horrela, gainera, «zerbait desberdina» egiteko aukera izan dute eta baita proiektu «propio» bat izatea, «guk asmatutako eta sortutako zerbait», alegia.

Horiek horrela, dantza eta jan- tziei esker ikusle goari filmaren sustraiak helarazi nahi dizkiete

Alurreko kideek. Ikuskizuna zazpi hilabeteetako lana da eta bi bizi- modu desberdin erakusten dira; herriarena eta jauntxoena.

## Sorginak ezin falta

«Su bera irudikatuko dugu hasie- ran ematen digun beldurra -garai hartako suaren esanahia- eta bu- kaeran suak ematen digun indarra eta itxaropena adierazteko», argi- tu dute Alurr Dantza Taldeko ki- deek.

«Gure emanaldian ez dago ira- bazlerik, bi indar horien arteko desberdintasuna adierazten dugu bakarrik. Eta noski, sorginak ezin ziren falta istorio honetan, nahiz eta ez izan akelarreen inguruan. Garai hartan nola ibiltzen ziren isilpean, ezkutuan eta pertsegi- tuak adierazi nahi izan dugu. Ez ziren emakume txoro ba- tzuk, garai hartako emakume au- rreratuenak baizik», gaineratu du- te.

# Urtebete pasa ondoren, liburutegiaren balantzea «positiboa izan da»

**Bidegoian** » Begoña Olamusu da arduraduna eta berak dauzka urteko datuak eta «erantzuna ona izaten ari da».

## NEREA URBIZU

Duela urtebete pasatxo Bidegoiango liburutegia inauguratu zuten, 2008ko urtarrilaren 11n. Hilaren 14an berriz, martxan jarri zuten herritarrentzat. Bada, urtebete igaro ondoren, bertan lan egiten duen Begoña Olamusuk «balantze baikorra» egin du.

Liburutegian Nagore ari zen etxeko lanak egiten, ia egunero bezala. Harekin batera, beste asko joaten dira ikastetxeak bidalitako lanak egitera. Nagorek esan bezala, «lan batzuk hemen egiten ditut eta beste batzuk etxean. Liburutegia gustatzen zait». Begoña Olamusu liburutegi arduradunak eguneko batz beste, 15-20 lagun joaten direla argitu du.

Gehien irakurtzen dena nobela, eleberria da eta «batez ere helduena. Hala ere, guraso asko ere etorzen dira umeei, gauza bat edo bestea egiteko». Gogoratu behar da ere, haurrek bereziki haientzako egokituta dagoen txoko bat badela han bertan.

Uztaillean, abuztuan eta iraileko



Janire, Leire, Nagore eta Maite ia egunero joaten dira liburutegira. Irudian, irakurtzen eta lanean. N.U.

egun batzuetan itxita egon zen, baina bestela, astelehenetan eta asteazkenetan egoten dairekita arratsaldean.

Urte osoan zehar 84 lagunek eskuratu dute txartela. Honen bidez, bertan dauden liburuak eta materiala eskatu ahal izango dute eta baita etxera eraman ere, noski.

## Aurtengo zerbitzu berria

Aurten orain arte ez zegoen zerbitzu bat jarri dute martxan, eskaera bidezko maileguena, alegia. «Liburu bat eskatu eta hemen ez ba-



Irudian Maite, Begoña arduradunari liburu bat bueltatzen. N.U.

## » HAINBAT DATU

- **Erabiltzaileak.** 1.900.
- **Txartelak.** 84 lagun.
- **Maileguak.** 641. Euskaraz 431 eta erdaraz 210.
- **Erositako liburuak.** Urte osoan 84.
- **Liburu erregistratuak.** 4.900.

dago, sarea osatzen duten liburutegietan eskatu eta handik egun gutxira honera ekartzen dute mezulari bidez». Dagoeneko jendea hasi da erabiltzen eta «batez ere helduek eskatzen dituzte gauzak».

Urtean zehar liburu berriak erosten joan da Begoña Olamusu: «Hauk beharren arabera eta jendearen eskaeren arabera erosten ditut. Askotan DBHko ikasleek eskolan behar dituzten liburuak izaten dira. Bestela, helduentzako eleberriak dira gehien eskatzen direnak». Bestela ere, oinarriko liburuak izan dira eskaera handia izan dutenak: atlasak, hiztegiak... Materiala erosteko aurrekontu bat dago.

## Txartela noiznahi egin daiteke

Ostiralero herriko jende heldu talde bat liburutegian elkartzeko da, eta irakurtzeko zaletasunaz gain, hitz egiteko ere elkartzeko bertan. Horretarako txoko bat dago, mahai eta guzti. Beraz, bestelako zerbitzuak ematen ditu liburutegia.

Herritarrek txartela eskuratzeko liburutegian bertan dagoen agiri bat bete behar dute. «Berdin du zein urteko garaian datorren, bakkari papera bete behar da».

# Eskualdeko hainbat udalerrik diru laguntzak eskatu dituzte

**Ekonomia** » Dagoeneko herri batzuk jaso dute erantzuna; 10 eguneko epean erantzunak jasoko dituzte eskatu dutenek.

## ERREDAKZIOA

Bihar arte udalek diru laguntza eskariak egin diezaizkioke Espainiako Gobernuari. Herrian egin nahi diren proiektu txikiak finantzatzeko dirua izango da eta toki inbertsiorako estatu fondoa da finantziazten duena. Dagoeneko eskualdeko herri batzuk eskatu dute eta beste batzuk, erantzuna ere, jaso dute, esaterako, Ibarak. Diru laguntza eskaera egin eta handik gehienez ere 10 egunera erantzuna ematen dute.

Tolosak, besteak beste, laguntza honekin Araba etorbidea eta Lurreren arteko zubia egingo du, Maxi Eroskiren inguruan. Ikaztegiak ere eskaera egin du, eta herri honi dagokion diru laguntza (biztanle kopuruaren arabera) da

## » HERRI BAKOITZARI DAGOKION DIRU KOPURUA

- **Abaltzisketa.** 53.804 euro.
- **Aduna.** 65.486 euro.
- **Albiztur.** 53.450 euro.
- **Alegia.** 298.579 euro.
- **Alkiza.** 56.990 euro.
- **Altzo.** 67.079 euro.
- **Amezketak.** 168.847 euro.
- **Anoeta.** 316.278 euro.
- **Areso.** 50.973 euro.
- **Asteasu.** 257.695 euro.
- **Baliarrain.** 16.106 euro.
- **Belauntza.** 54.158 euro.
- **Berastegi.** 177.519 euro.
- **Berrobi.** 67.079 euro.
- **Bidegoian.** 85.485 euro.
- **Elduain.** 40.176 euro.
- **Gaztelu.** 30.088 euro.
- **Hernialde.** 59.114 euro.
- **Ibarra.** 756.271 euro (onartuta).
- **Ikaztegieta.** 80.530 euro (onartuta).
- **Irura.** 224.775 euro.
- **Larraul.** 36.814 euro.
- **Leaburu.** 67.963 euro.
- **Leitza.** 511.319 euro.
- **Lizartza.** 107.963 euro.
- **Orendain.** 30.973 euro.
- **Orexa.** 20.354 euro.
- **Tolosa.** 3.165.966 euro (onartuta).
- **Villabona.** 1.017.683 euro.
- **Zizurkil.** 493.797 euro.

80.530 eurokoa da. «Diru laguntza hau jasoz gero haur parke bat egin genuke», bertako Udalak jakinarazi duenez. Eskaera joan den astelehenean egin zuten. Beraz, erantzuna datorren asteazkena baino lehen jasoko dute. Altzok ere eskaera egiteko asmoa du, baina oraindik ez du argi zertarako erabiliko duen dirua.

178 euro emango litzuke laguntza honek biztanle bakoitzeko. Udalek *Zapatero plana* bezala ezagutzen duten diru laguntza da eta eskatzeko bete beharreko baldintzak hauek dira: alde batetik aurrekontuetan ez du islatuta egon behar diru honen inguruko den obra, eta bestetik, obra hau langabezia dagoen jendeak egingo du.

## Laburrak

### Iazko zabor bilketaren tasak ordaintzeko epea

**IKAZTEGIETA** » Ikaztegieta, 2008ko bigarren seihilabeteko zaborbilketa tasari dagokion errola onartu dute dagoeneko. Hau ordaintzeko epea otsailaren 12an bukatuko da.

### D3M plataformarako sinadurak bihar ere bai

**IKAZTEGIETA** » Ikaztegieta gaur D3M plataformarako sinadurak jasoko dituzte, udaltxean 09:00etatik 15:00etara bitarte. Sinatzeko azken aukera bihar izango da, goizez, 10:00etatik 12:00etara.

**@ Eztabaida.** Merkealdian zenbat diru gastatzeko asmoa duzu? 100 euro, 200 euro, ezer ez... Dagoeneko irakurle batzuk gure webgunean erantzunak eman dituzte. Beste eztabaida batzuk ere aurkituko dituzu atal horretan bertan, hainbat gai jorratzen dituztenak. Anima zaitze eta eman ezazu zuk zeure iritzia ere!

[www.tolosaldeko hitza.info](http://www.tolosaldeko hitza.info)

### Etzi, Beotibarren Aurrera-Saiaz ariko da goizean

**PILOTA** » Etzi Euskadiko Kluben arteko Txapelketako partidak jokatuko dituzte Tolosako Beotibar pilotalekuan. 11:00etan hasiko dira eta bertan Aurrera-Saiazko lau norgehiagoka jokatuko dituzte. Lehenengoan Arraztoa ariko da ohorezko mailan Lemoakoaren kontra; Narbarte-K. Galarragak Lemoakoaren kontra seniorren mailan; Epelde-Mujika seniorrak Paz Zigarzakoen kontra eta bukatzeko, ohorezko mailako binakakoan Irazusta-Telletea ariko dira Zaramagakoaren kontra. Kanpoan beste hiru partida dauzkate.

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza alokairuan Tolosan, behean pisua gehi txapitula berogailuarekin. 550 euro hilabetean. Interesa dutenek deitu 669 93 99 43 telefono zenbakira.





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** OS-3998-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Anoeta.** Otsailaren 14ko Dantza-Sokarako entseguak ostiralero 18:30ean Edurkan. Parte hartzeko zerrendak jarrita daude Itzuli tabernan, otsailaren 6ra arte.  
■ **Tolosa.** Tolosa CFren asanblada Kultur Etxean 19:30ean (20:00etan 2. deialdia): urteko aurrekontua, Berazubiko igerilekuaren balorazio ekonomikoa, lehendakari hautaketa.

### Antzerkia

■ **Tolosa.** *Mi primera vez* antzerkia Leidor aretoan 20:30ean.

### Ikuskizunak

■ **Ibarra.** Alurr Dantza Taldeak *Sua* ikuskizun berria aurkeztuko du urtarilaren 30ean, 22:00etan, Belaubieta kiroldegian, Uzturpe Ikastolak antolatu duen Kultur Astearen barruan. Sarrerak salgai daude Uzturpe Ikastolan, Karlatz eta Zubiaurre tabernetan.

### Musika

■ **Tolosa.** Manent eta Seiren musika taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.  
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.  
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

# Astebururako mendi-planak

**Mendia** » Aizkardikoak, egitasmo berri baten baitan, goizeko ibilaldiekin hasiko dira; Villabona-Zubieta izango da lehena.

### ERREDAKZIOA

Villabonako Aizkardi mendi elkarteok egitasmo berri bati hasiera emango diote igande honean, etzi. Goizeko irteerak deitu diote eta Villabona-Zubieta ibilaldia egingo dute. 08:30ean elkartuko dira Olaederra kiroldegian ondoan eta ez da beharrezkoa izena ematea aurretik. Ibilaldia Zarate eta Andatza gailurretatik pasatuko dira eta Zubietara iritsi ondoren Villabonara autobusean itzuliko dira.

Aizkarditik azaltzen dutenez, «asmoa da jendea mugiaraztea. Jende asko dago elkartetik antolatzen ditugun ohiko martxak ez direla beraientzako, gehiegi direla. Horrela, goiz batean egiteko eta lasai-lasai egiteko ibilaldiak antolatu ditugu». Ura, zatoa eta hamaiketakoa eramateko diote elkartetik: «Koadrilan bezala joatea da asmoa».

Hilero horrelako ibilaldia antolatu dute. Otsailen, Inauteriko igandean Villabonatik Tolosara egingo dute ibilaldia. «Lehen ere egiten ziren ibilaldiak errepikatzea izango zen. Zubietara joateko ohitura ere bazegoen, bertan egiten den kros txapelketa ikustera



Zarate eta Andatza gailurren ikuspegia. HITZA

eta Inauterietan Tolosara joateko era». Tolosarako ibilaldi horretan Uzturretik igaroko dira. Martxoan ez dute antolatu, 41. Aizkardiko Ibilaldia izango delako. Apirilaren Aste Santua dela eta ez dute antolatu. Maiatzean Asteasura joango dira Zarate eta Andazarratetik igaroz eta gero bidegorritik itzuliz Villabonara. Ekainean Urnietara joango dira Besabitik igarota. Uztailera begira ez da au-

rreikusit, baina ikusten bada aukera dagoela edo jendea animatzen dela antolatuko dute. Egutegian jarritako dagoena Aralarrean joatearena da.

### Oargikoak eta Alegiako Mendi Asanbladako irteerak

Eskualdeko beste mendi taldeek ere euren egutegian asteburu honetarako. Hala, Alegiako Mendi Asanbladak iganderako Aralarre-

ra mendi irteera antolatu du. Bertan, Txindokiko zirkuitoa egingo dute.

Oargikoak irteera luzeagoa dute aurretik. Gaur bertan abiatuko dira eta Collarada eta Pic de Moinesera irteera antolatu du mendi elkarrekin. Igandera arte egingo dira bertan. Informazio gehiago 943 675612 edo 688 698642 telefono zenbakietan eta [www.oargi.org](http://www.oargi.org) helbidean eskura daitezke.

## LIBURUA SALGAI

Salmenta:  
Liburuaren prezioa: 18 €  
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko Hitzako bazkideak: 14 €

Eskaintza bereziak:

5 liburu 80€	10 liburu 140 €
-----------------	--------------------

Salmenta puntuak:  
• Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitzako bulegoetan,  
• Tolosako Aranburu, Babel eta Elkar liburudendetan,  
• Ibarako Lurdes liburudendan,  
• Villabonako Basajeun liburudendan.



ARANZADI

galtzaundi

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza**